

# DROGETEN

Ermua eta Mallabiko aldizkaria, 205. alea, 2012ko urria

ITURRI



**San Martin azoka  
esku artean**

Ermuan, Euskal Birusa Elkarreak antolatua,

# XXIII. SAN MARTIN AZOKA

Azaroren **10** ean, larunbata



**11.00**

- **Azoka** jendearentzat zabalduko da.
- **Kalejira** Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- **Kalejira** Arrasateko gaiteroekin.
- 'KULKI' rekin **umeentzako jolasak** eta **ikastetxeetako postuak** San Martin plazan.
- **Ehun buruko artaldearen jaitsiera** Errekaldetik Baldespina parkera.
- **Abere erakusketa** Baldespina parkean.
- **Idi pare** Probalekun.
- **Artisauen postuak** Santiago plazan.
- 'Astobusa'.

**11-14.00**

- Ze pisu du aurtengo txerriak? Apustua 1€ Saria jasotakoaren %70a. Pisu 14.00etan argituko da

**12.00**

- Neska eta mutilen baserriar **jantzi lehiaketa** plazako oholztan (12.00ak eta 12.30ak bitartean aurkeztu). Saria: bi pertsonentzako afari bana.

**10-12.30**

- **Euskal jantzien erakusketa** Lobianon: Zapia, gerrikoa eta abarkak nola jantzi. Eskolabarrak antolatua

**12-14.00**

- **Haurrentzako eskulanak** Elizpean. Eremu akademiaren eskutik

**12.30**

- **Euskal dantzak** plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

**13.00**

- Erakuslehi lehiaketako **sari banaketa**.

**18.00**

- **Erromeria 'LUHARTZ'** taldearekin Orbe plazan.

**19.00**

- **Kalejira** Arrasateko gaiteroekin.

**19.30**

- **Errifa zozketa** Orbe plazan.
- **Larraindantza** Orbe plazan.



## San Martin kulturala

**AZAROAREN 2an, ostirala:**

**Bertsu jaialdia:**

Sustrai Kolina Uxue Alberdi  
Igor Elortza Maialen Lujanbio  
A.M. Peñagarikano Beñat Ugartetxea

**Gai jartzailea:** Josu Goikoetxea

Ermua Antzokian, 22.15ean. Sarrera: 10€.  
Euskal Birusak eta Kultura Sailak antolatua.

**AZAROAREN 5ean, astelehena:**

**Talo ikastaroa.**

19.00etan Leku Eder Elkarte.

Aldez aurretik eman behar da izena 943 03 04 65.

Prezioa: 2€. Euskal Birusak antolatua.

**AZAROAREN 7an, asteazkena:**

**Sagardo dastatzea.**

Bizkaia, Gipuzkoa eta Asturiasko sagardoak  
19.15ean Lobiano kulturgunean.

Lobiano Elkarte Gastronomikoak antolatua.

**AZAROAREN 12an, astelehena:**

**Gaztañerre** eguna.

Afari-merienda autogestionatua,

19.30etatik aurrera Erretena Elkarte.

Edariak eta gaztainak doan. Kaltxango AEK  
euskaltegiak eta Ermuko Berbalagun  
praktika-egitasmoak antolatua.

**AZAROAREN 16an, ostirala:**

**Antzerkia: 'Goenkale (Markesaren erretratoa)'.**

Ermua Antzokian, 22.15ean. Sarrera: 10€.  
Kultura Sailak antolatua.

**AZAROAREN 17an, larunbata:**

**Umeentzako antzerkia.**

'Alabatxo',

17.00etan Ermua Antzokian.

Sarrera: 4€. Udakultura Sailak antolatua.

**AZAROAREN 22an, osteguna:**

**Zinekluba: 'Gazta zati bat'.**

20.30ean Ermua Antzokian.

Solasaldia Jon Maiarekin

Sarrera: 3,5€.

Mudo Drogotek eta

Ateneo Libertarioak antolatua.

**AZAROAREN 30ean, ostirala:**

**Kontzertua: Benito Lertxundi**

Ermua Antzokian, 22.15ean. Sarrera: 18€.

Udal Kultura Sailak antolatua.

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone  
Amesti, Ibaia Azagirre,  
Estibalitz González,  
Asier Ibaibarriaga, Ane  
Saénz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA  
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**

Andere Astigarraga, Idoia  
Carracedo, Leire Elustondo,  
Fede Iturriagagoitia, Patxi  
López, Pello Mugarza,  
Valentin Mugarza, Izara  
Rivas.

**ARGAZKIAK:**

Igone Amesti, Andere  
Astigarraga, Ibaia Azagirre,  
Leire Elustondo, Sara Gago,  
Estibalitz González, Asier  
Ibaibarriaga, Ainhoa Lasuen,  
Maidier Molina, Valentin  
Mugarza, Izara Rivas,  
Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Andrea Díez, Nora Mateos  
eta Olatz Loiola.

**TIRADA:**

2.300 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## TXIRRIXA *Vencejo común Apus apus*



Naturak eman digun hegalaria one-netakotzat hartua, kumatze sasoiari lurreratzen da bakarrik: hegan harrapatzen du janaria, hegan estaltzen dira ar-emeak eta lo ere hegan doala egiten duela frogatuta dago, urteko 9 hilabete airean, lurreratu gabe ematen duelarik. Lurrean, bere hanka txiki eta hegoen luzera dela-eta, haitzerik hartu ezin eta nekez altxatzen du bere gorputza; hegan egitea erraztuko dion altura edo koskatxoren bat behar du. Iluntzean, elizako dorreari bueltaka ibiltzen dira, txilioka, ustez borrokan dabiltzala 'txirri' eta 'txirri', zarta baten. Gauerantz, gora eta gora egiten du, 2.000 metrotik gorako haizeetarrantz; arrautzak berotu edo kumeak elikatu behar ez dituztenek, hantxe ematen dute gaua, harik eta eguna zabaltzen den arte.

## Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO ....4	ERMUAN ZER? ..... 15
Bostenbor	Liburutegien VI. kongresu nazionala
ELKARRIZKETA .....5-7	KIROLZALE ..... 17
Txomin Arregi eta Eñaut Gallastegi	Zigor Ceballos ziklo-krosean
MALLABIAN ZER? .....8-9	BOTEPRONTOAN ..... 18
Eider Aranburu	Yolanda Palmero
ERREPORTAJEA ..... 10-11	SALEROSKETAK ..... 19
Ameriketako Izarrak	Saldu, erosi edo agurtu
SAN MARTIN ..... 12-13	ANTZINAKOAK.....20
Egitaraia eta San Martin kulturala	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN ..... 14	KALEKO INKESTA ..... 21
Zorionak Victoria Arriaga	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA ..... 22

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Bostenbor

**Mallabiko talde gazte honek Urriko jaietan eskaini zuen aurreneko kontzertua.**

**1** Duela urtebete inguru elkartu ginen lehen aldiz eta abenduan entseatzen hasi ginen. Anderek abeslariari buruz hitz eginez konbentzitu zituen baxu-jolea, bateria-jolea eta gitarra-jolea. Bere ahotsa lehenengoz entzun eta ez zuten birritan pentsatu. Talde berri bat genuen.

**2** Basauri On lehiaketara aurkeztu ginen lehen hiru kantak sortu ostean. Bakoitzak bere instrumentuari eraginez atera ziren abestiok eta izena jarri behar genion taldeari: Bostenbor, hori da azkenean taldekideen barrukoa ateratzean sortzen dena, denon artean eginiko musika. Enborra soinari ere deitzen zaio, eta gure musika hortik dator, bihotz-bihotzetik.

**3** Gille (bateria), Alvaro (baxua), Iban (gitarra), Andere (soinu txikia eta pianoa) eta Aroa (ahotsa) gara. Gille eta Alvaro beste talde batzuetako partaide ere bagara eta, beste hirurok, aurretik ibili gara musika taldeetan. Baina hauxe da gure proiektu kuttuna, bilatzen ari ginena. Dena utzi eta buru-belarri gau-de sartuta Bostenborren.

**4** Kantak nahiko ezberdinak dira baina bestearengandik. Rock, pop, funky, dance... denetarik dago. Entzun eta ikusi egin behar da.



**5** Gure abestiak egiten gabiltza, orain arte hamabi dauzkagu. Denon artean sortuak dira, baina armonia eta orrazketak gehienbat Ibanek lantzen ditu eta hitzak Aroak eta Anderek. Horren ostean, lokalean elkartzean ateratzen da beste guztia.

**6** Aroak taberna du bere herrian, Muruetan, eta ondoan daukan lokalean egiten ditugu entseguak. Bergara, Gallarta, Ondarru eta Aulestetik hurbiltzen gara besteok. Ahalegintzen gara asteburuko goiz edo arratsalde batean elkartzen, astero, baina zaila egiten zaigu.

**7** Zirrara handia egin zigun lehengo aldiz Mallabiko Urriko jaietan jotzeak. Eguraldiak ez zigun asko lagundu, baina jendea gu ikusten geratu zen. Ikaragarria izan zen hori eta gogoz geunden, bai-

ta urduri ere. Ez zen atera guk nahi genuen bezala, baina uste dugu transmititu genuela gure izaera, nahiz eta akatsak egin. Lehen aldia izan zen eta espero dugu gero eta hobeto egitea. Hurrengo kontzertua Muruetan daukagu hilaren 10ean, eta Bermeoko Kafe Antzokian egongo garelakoan gaude, baina data lotu gabe dago.

**8** Maketa bat grabatuta dugu baina editatu barik dago. Egunen batean argia ikusiko du, Gabonak baino lehen seguruenik.

**9** Myspace-a badugu, momentuz kanta bakarrarekin: [www.myspace.com/bostenbor](http://www.myspace.com/bostenbor) Gehiago grabatu ahala berriztatzen joango gara. Gurekin kontaktuan jartzeko beste bide batzuk: [bostenbor@hotmail.com](mailto:bostenbor@hotmail.com) helbidera idatziz, Facebook-en edo 649092936 telefonora deituta.

**san antonio** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
38 urte Ermua euskalduntzen



## **Txomin Arregi eta Eñaut Gallastegi, gazteak eta baserria ogibide**

20 urte besterik ez dituzten arren, batak eta besteak oso garbi dituzte gauzak. Beraien ogibidea baserria izateko hautua egina daukate. Eñaut Gallastegi Mallabiko Goita auzoko Onandi baserrian bizi da. Aberezale amorratua izan da txikitatik. Gaur egun 120 ardiz osatutako artalde baten ardura dauka. Gaztagile izateko pausoak ematen dihardu. Txomin Arregik Markinako Mibe auzoan dauka baserria eta bertan dauka negutegia ere. Hilabete eskas darama bere produktuak Markinako merkatuan saltzen.

Eñaut Gallastegi, artzaina:

# “Umetatik garbi neukan baserriatik biziko nintzela”

- *Nolatan hasi zara baserri lanetan?*

Betidanik gustatu izan zait baserri mundua. Baserrian jaio nintzen, hemen bizi naiz. Horrez gain, baratza ez baina aberezalea izan naiz betidanik. Gurean betidanik behiak izan dira baina, duela zenbait urte, ardiak ekarri genituen.

- *Artzai lanetan zabilta beraz...*

Umetatik garbi neukan baserriatik biziko nintzela. 14 urterekin hasi nintzen baina, orain dela urtebete, honetan serio hasteko erabakia hartu nuen. Ama ere langabezian gelditu zen eta etxean laguntzeko aukera ikusi nuen.

- *Ama ere laguntzen daukazu...*

Bion artean ari gara. Nik ardiak zaindu, gobernatu eta amak gaztak egingo ditu. Eguneroko lana eskatzen du horrek. Lan lotua da.

- *Ikastaro bereziren bat egin duzue?*

Arantzazuko artzain eskolan ikastaroren bat eta horrez gain, Azpeitian gure senide batek ere ardiak daukanez, harekin asko ikasteko aukera izan dugu.

- *Zenbat ardi dituzu gaur egun?*



120 inguru, baina negoziari ekiteko eta diru-laguntzak bermatzeko 250 izan beharko ditut.

- *Sororik edo landarik baduzue?*

Nahiko larri gabilta eta etorkizunean zerbait alokatu edo erosi beharko dugu.

- *Inbertsio handia eskatzen du horrek...*

Gaztategia egiteko eraikin bat, gaztak gordetzeko bilategia, kamarak... inbertsio

handia egin behar da. Dena den, ekoizpen txikiarekin hasiko gara gu. 2.000-3.000 kilo inguru ekoizteko asmoa dugu. Diru-laguntzekin %60 babesten diguten arren, pentsua asko garestitu da.

- *Noiz hasiko zarete gaztak saltzen?*

Orain udazkenean bildotsak jaioko dira, esnea jetzi eta gaztak egiteari ekingo diogu. Gure asmoa urtarrilean saltzen hastea da.

- *Nola salduko duzue? Herrian, dendatan...*

Ahoz-ahokoa da klabea. Pixkanaka ezagunekin hasi, inguruko herrietan... Baserrian bertan ere denda irekiko dugu.

- *Nola dago gaztagileen merkatua?*

Gipuzkoan erabat gainezka dago. Bizkaian aukera gehiago ikusten ditugu.

- *Zu bezalako artzain gazterik bada inguruan?*

Badira 2 gazte. Ni baino gaztetxoagoak dira. Bata Urien, Abadiñoarra, eta beste Joseba, Atxondokoa

- *Koadrilakoek zer esaten dizute?*

Ea zoratu ote naizen, baina oro har nire erabakia babesten dute.

- *Besterik?*

Ea Onandi baserriko gazta jendearen gustuko izaten den eta pixkanaka aurrera egingen laguntzen digun.

**“Koadrilakoek ea zoratu naizen esaten didate, baina nire erabakia babesten dute”**

**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES  
AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia

Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15

www.areiotor.com

administracion@areiotor.com / areiotor@areiotor.com

**Txomin Arregi, nekazaria:**

# “Lan asko egin beharko dut egindako inbertsiori aurre egiteko”

**- Nola animatu zara pausu hau ematera?**

Nik ere ez dakit oso garbi baina mendia eta baseri mundua gustuko izan ditut txikitatik. Etxean beti izan dugu baratze txikiren bat eta sagarrondo edo mahastiren bat.

**- Formazio berezirik egin behar izan duzu?**

Derioko nekazari eskolan hasi nintzen, baina urtebete egin ostean nazkatu eta utzi nuen. Ikasketa guztiak gaztelera hutsean ziren eta horrek zailtasun asko sortzen zizkidan.

**- Noiz hasi zinen lanbide honetan?**

Orain dela urtebete. Aurrekontuak egin, eskaerak eta abarrak. Gure etxetik oso hurbil Luis Mari Malaxetxebarrria bizi da eta haren laguntza ezinbestekoa izan da.

**- Inbertsio handia izan da?**

Bai. Diruaz gain, buruhauste eta ardura asko behar izan ditugu hau guztia martxan jartzeko. Lan ordu asko beharko ditut egindako inbertsioari aurre egiteko.

**- Negutegiak edo inberreroak jarri eta martxan zara...**

Orain dela 2 hilabete hasi nintzen ekoizpenarekin eta jada bada hilabete, ostegunero, Markinako merkatuan saltzen hasi naizena.

**- Zer moduzko esperientzia azokakoa?**

Hasieran, ezagutu arte, denak dira galderak. Nongoa naizen, non daukadan base-rria... baina behin ezagutzen zaituztenean oso ondo.

**- Eta bezeroekin?**

Gehienak 60 urtez gorakoa dira. Badakite genero ona zein den eta prezioak merezi duen ere.

**- Zurea produktu ekologikoa da...**

Gure produktuak naturalak dira, garbiak. Ez daukate pozoirik. Lan gehiago eskatzen du hurbileko jarraipena egin behar zaiolako eta ondorioz prezioa pixka bat garestiagoa den arren, generoa oso ona da. 2 urte ekoiztu ostean emango didate nekazaritza ekologikoaren seilua.



**- Duela gutxi zure aurreneko azokan ere izan zinen...**

Markinako azoka egunean izan zen. Jende asko inguratu zitzaidan eta salmenta polita egin nuen. Pozik nago izandako harrerarekin.

**- Aurrera begira zer asmo duzu?**

Ahal dudan azoketara joan eta astearte eta larunbatean Ondarroako merkatu plazara joatea. Horrez gain, 5 edo 10 laguneko bezero taldeak lortu nahi nituzke

asteroko generoz osatutako 15 euroko otzarak banatzeko. Esperientzia hau herri askotan egiten da eta Markinan edo inguruko herrietan abian jarri nahiko nuke.

**- Ermuko San Martin azokara ere bazatoz...**

Aita ere Ermuarra nuen eta Ermuko San Martin azoka beti izan da berezia guretzat. Han izango naiz eta espero dut genero ona plaza ratzea.

Asier Ibaibarriaga

**Infreñu Taberna**  
Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com

**uriarte asesores** ✓  
Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza  
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

**ONTINDIA HARATEGIA**

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA  
Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41

**Descubrete**

· Teak eta kafeak.  
· Belgiako txokolata.  
· Eguneko tea dastagari  
· Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak....

**Oparitzeko neurria egindako poltsak!**

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

Eider Aranburu, liburutegi laguntzailea:

# “Irakurketia aukeratzari denborie eskeintzia gomendatzen dut”

34 urte. Interiorista eta Artearen Historian ikasketak burutu ostien, Liburutegi Laguntzaile kurtsue egin eban igez. Pasa dan hiletik, Iraideren haurdunaldixe dala eta, Mallabiko Liburutegixen dago lanien.

**- Zer dala eta egin zendun Liburutegi Laguntzaile ikastarue?**

Betidanik izen dittut liburutegixek gustoko, baita irakurri eta ikestie be. Eta Ermuko Liburutegiko liburuzain batek aittetu eustenien, animatzie erabaki neban. Kurtso horretako praktikak Mallabixen egin nittuen sei astez udan.

**- Gustora zauz Mallabixen lanien?**

Oso gustora! Oso lasaia da eta pozik nau bertan.

**- Irakurtzie gustoko dozu? Zein estilo?**

Bai, asko! Emakume artisten biografiak asko gustatzen jataz, nobela beltzera be zaletu naz azken aldixen... Nobelak orokorrien.

**- Zein da irakurri dozun azken liburue?**

‘La Delicadeza’, David Foenkinosena.

**- Eta zein da zure gustukue-na?**

Eider Rodrigezen ‘Katu Jendea’ asko atsegin dot, baitte Frida Kalhoren biografi xie be.

**- Zein hizkuntzatan irakurtzen dozu?**

Euskaraz eta gazteleraz,

bietan irakurtzen saiatzen naz. Txandatu egitten dittut normalien.

**- Zer aurkitu leike Mallabiko Liburutegixen?**

Haur eta gaztientzako liburuetan aukera haundixe dago, adin edo epeka banatute. Nobela eta bibliografi xia ugaribe badago, euskaraz nahiz erderaz. Kontsulta, gida-liburuek, bidaia-liburuek, bertolaritzaren ingurukuek... Alor desberdinetako eskaintza haundixe dago. Horrez gain umien DVDiek be badagoz alokagai.

**- Zeren arabera erosten die liburu barrixek?**

Askotan jentian eskaeraren arabera. Liburuzaiñan kriterixue be inportantie izeten da, aldizkarixetan irakurrittekie edo entzundakuan arabera. Haur eta gaztien kolekzinuek betetzen be ahalegiñe egitten dogu. Horrez gain, herrixandako interesantiek dien liburuek ekartzten be saiatzen gara; uda aurretik ortu ludikuen inguruko liburuek erosi genduzan, esate baterako.

**- Zeintzuk die Mallabiko erabiltzailiek?**

Irakurle moduen 35 urte ingurutik gorakuek die gehixen bat Liburutegiko zerbitzuek erabiltzen dittuztenak; gazte eta umiek be etortzeko ohitura haundixe daukie, irakurtzera, ikastera... Aipatzekue da emakumiek gizonezuek baino askoz gehixau



etortzen diela Liburutegire, irakurtzeko zalentasan handixae daukie.

**- Herrixen irakurzaletasunik badauela esango zeunke?**

Bai, baina Mallabin gehixen irakurtzen dienak nobeladie diela konturatu naz. Liburutegiko pasiluetan zihar ibili eta autore eta liburuek kuxkuxeatzie kostatzen jakela uste dot.

**- Zer eingo zeunke zaletasune sustatzeko?**

Nobeladien aldizkarixie egingo dogu, holan jentiek zer barri daukegun jakin eta etortzera animau leike. Honetaz gain, eta jentie animauko balitz, irakurketa kluba egittie be oso ondo legoke.

**- Ze liburu gomendatuko zeunkixo Drogeteniturriko irakurliari?**

Irakurtzeko ohiturie daukenai Joseba Sarrionandiarren azkena ‘Moroak gara behelaino artean?’ adibidez, eta irakutzera animau gure dabenai Katherine Pancolen ‘Los ojos amarillos de los cocodrilos’. Jentie Liburutegire etorri eta literaturan murgiltzera animatzen dot, pasilluetara sartu, dauezen liburu eta idazliek ezagutu... denborie eskeñi irakurketa aukeratzari. Horretarako hemen egongo gara astelehentik barixekure, arratsaldeko 16.00tatik 20.00tara bitartien.

**IZOTZ**  
IZOZTUAK

ERMUA  
Merkatua  
54-55 postuak  
943174101

ARRASATE  
Merkatua  
943770598

**ELUR**  
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

**Aldapa 1** **943 17 60 52**

**ILEAPAINDEGIA**

*Izaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**



## GAZTE TALDIE MARTXAN

Euskal Herri mailan eratuko dan gazte erakunde barri bat sortzeko ideiak bat egin eta gazte taldie batu da Mallabixen. Pasa dan urrixan 12xen egin eben aurkezpena eta 9 lagunek parte hartu eben bertan. Ordutik, saio desberdinetan, egungo egoera sozial nahiz politikuan inguruen hausnartu dabe eta, interesa daukenantz, horretan jarraituko dabe otsaila bittartien.

## ENPLEGU PLANA ERMUAREKIN BATERA

Eusko Jaurlaritzak emoten daben Eskualdeka Enplegu Plana dinamizatzeko diru laguntza aprobetxatute, Mallabixek Ermuarekin batera bideratuko dau plana. Hasiera baten, Mallabixe Durangaldeko herrixe danez, eskualde honetako gainontzeko udalerrixekin batera Plana aurrera ateratzeko asmue euen. Baina enpresa alorrien Debarrenekin dauen sarie ikusitte, Ermuakin batera egittie erabaki da. Plan honen bittartez inguruko lan-merkatue aztertu eta egoera sozio-ekonomikuan diagnosixe egingo da. Ondoren, plana osatzeko estrategiak adostu, eta bukatzeko Ekintza Plana diseinatuko dabe, azterketan antzemandako gabeziei aurre egittek bideak proposatuz. Aipatzekue da plana partaidetza Foroan adostuko dala; bertan, erakunde, agente sozial eta ekonomikoak, prestakuntza zentroak etab. egongo die ordezkaturte,

## AREITOTIK ZABORTEGIRAINOKO BIDE LANAK

BI-3342 foru errepide zatixe, Areitio gainetik Betearte isurtegi doiena, aspalditik dau egoera txarrien. Hori dala eta, Betearte enpresak bidegurutzetik isurtegi doien bide zatixe konpontzeko konpromisue hartu eban. Irailien hasi zittun obrak eta berau bukatzeko hiruhilabeteko epie daukie. Bide lan honentzako 280.000€ko aurrekontue daukie.

## BAT TALDEA

Birziklatzearen Aldeko Taldie sortu da oin dala gitxi herrixen. Bertan birziklatzen dabenak, hondakin murrizketaren alde eta berrerabilpenaren alde dauezenak gaur egungo egoeraz hausnartu eta herrixen egin leikezan proposamen ezberdinek batzie daukie helburu. Hurrengo batzarra, azaroaren 5ien arratsaldeko 7etan Kultur Etxean egingo dabe.

## UEUREN IKASTETXE NAGUSIKO ESKAINTZA

Udako Euskal Unibertsitateak Eibarren udazkenerako ikastaro ezberdinak antolatu dittu. Honek ikastaruok informatika eta teknologia barrixen gainien, giza eta gizarte gaixen ingurukuek eta osasunaren alorrekkuek die. Esatekkue da, Udalak ikastaruon izena emoten daben mallabitarrentzako diru-laguntza bat daukela.

## 'SANTA ZEZILIA' EGUNA MALLABIAN

Musikuen eguna ospatzeko kontzertua egongo da azaruaren 24an Mallabiko elizan, Jasokunde Abesbatzak antolatua. Jarraian, Gaztañerre jana egingo da plazan, Orraitio Euskara Elkartearen eskutik.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

**MUGA** **KIROLAK**



San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€)  
menua, bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO  
ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952  
(asteartetan itzita)

**Pub Dakota**



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

**EGANA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

# Ameriketako Izarrak: Espectacion Izarra eta Arantza Cazalis Izarra

**“Espe Alegria, Boiseko izarra”.** Halaxe dio Euskadi Irratiaren 30. urteurrenaren inguruan Koldo Ordozgoitik prestatutako **“Ua Ua. Hemendik Hotsa... Euskal Irratigintzaren Historia”** bildumaren 47. atalak. Izan ere, Ermuan jaio zen emakume hau Boiseko irratitik aritzen zen bertako euskaldunei euskaraz mintzatzen igandero 1952tik 1982ra arte, jubilatatu zen arte. Sarean entzungai dagoen dokumentuan Ordozgoitik azaltzen du irratsaio horren oihartzuna Josemari Iriondo kazetariari esker iritsi zaiela.

**H**ari horri tiraka, ermuar honen nondik norakoen berri izan dugu Añamendi Entziklopediaren bitartez eta Maria Dolores Izagirre ermuarrarekin hitz eginenez. Espectación (Espe) Izarra Ermuan jaio zen 1906an eta Boisen hil zen 1991an. Aita Pedro Jose Izarra ermuarra eta ama Pilar Etxeberria legazpiarra.

Mari Dolores Izagirre Fidel Izarraren alargunak argitu digu, Esperen ama banatu egin zela eta Ameriketara joan zirela ama eta alaba. *“Guk nebarekin harreman estua izan genuen eta nebaren hiletan egon ginen Espectación eta alabarekin. Nolakoa den bizitza! Euskal Herrira etorri gabe urte asko egon ondoren, Esperen osaba zen Patricio Etxeberriaren urrezko ezteiak ospatzera etorri ziren Legazpiara Espectación eta bere alaba Rosita. Bidaian zirela Espectaciónen neba hil zen. A ezustea, urrezko ezteiak ospatzera etorri eta nebaren hileta aurkitu!”*



“Prosografía de la emigración vasca” bilduman Añamendi Entziklopediak dio Espe amarekin bizi izan zela AEBetan eta 18 urte bete zituenean Boisera, Idahora, heldu zela 1925eko uztailan. 1941era arte gaztelerazko klaseak eman zituen ejertzito estatubatuarren Gowen Field-en (Boisen). Enrique Alegria ondarrutarrarekin ezkondu zen. Enrique eta haren familia Ondarrutik Estatu Batuetara joandakoak ziren. Alaba bat izan zuten, Rosita Alegria Izarra.

gain, Euskaldunak Incorporated, Euskal Museo eta Kultura Zentruko eta Basque Girls' Club-eko kide izan zen. Boiseko euskararen aldeko zenbait ekimen eta ekitaldi babestu zituen.

Maria Dolores Izagirrek gogoratzen du Euskal Herriatik Idahora joaten ziren artzainei asko lagundu ziela Espectación Izarrak eta bere sinadurak balio handia izan zuela hemendik joandakoen paperen tramiteak egin ahal izateko.

Euskararekin eta euskal kulturarekin harreman berezia izan zuen Espectación Izarrak. Boiseko irratiko ahots euskalduna izateaz

Espek eta haren familiak Mexikora egin zuten bidaia batean ezagutu zuten Arantza Cazalis Izarra eta hilabete batzuk geroago haiekin joan zen bizitzera Cazalis Boi-

**Euskaldunak Incorporated eta Basque Girls' Clubeko kide izan zen Espe Izarra**



KRABI

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

sera. Horrela kontaktzen du Arantza Cazalisek erbesteran izan zituen bizipenak jasotzen dituen "Growing Up in a Time of War" (Gerra garaian bizitzen) liburuan: "1948ko udan Espe lehengusinare ezusteko bisita izan nuen. Ermuko gure etxean bizi izan zen osaba Pedro-Joserren alaba zen Espe. Henry gizona, Rosita alaba eta haien laguna zen Juanita Aldrichekin etorri zen Mexikora Espe". Bisita atsegina bezain dibertigarria izan zela aitortzen du Cazalisek. Izan ere, Mexikon zituen eta ezagutzen ez zituen senitartekoekin biltzeko aukera eskaini zion bisita hark Cazalisi.

Mexikon aste batzuk pasatu ondoren, Boisera bueltatu ziren Espe eta haren familia,

baina Arantzak eta Espek harremanetan jarraitu zuten. "Hilabete batzuk beranduago Esperen gutun bat jaso nuen -gogoratzen du Cazalisek-, Boiseko Junior Collegen laguntzaile moduan lan egiteko aukera lortu zidan". Ez zuen birritan pentsatu, ingelesa ikasteko aukera paregabea zen eta 1948ko abenduaren 18an Boisera heldu zen Espe Izarra eta bere familiaren etxera. "Ez ditut ahaztuko urte hartako Gabonak, ezta haren familiak niri egindako harrera ere", azpimarratzen du Cazalisek.

#### Arantza Cazalis Izarra

Arantza Cazalis Izarra 1929an jaio zen Ermuan eta lau anai-arreben artean bera da emakume bakarra eta



gazteena. Engracia Izarra eta Gregorio Cazalisen alaba eta Gregorio, Imanol eta Dionisioren (Duniren) arreba.


Arantza Cazalis Izarrak amarekin eta nebarekin alde egin zuen Ermutik Gerra Zibilaren garaian. Gauzak ez ziren errazak izan. Karrantzan zeudela babesleku batean hil egin zen Arantzaren ama bonbardaketa batean. Handik Panchique Cazalis izebarekin Santanderrera joan ziren lehenengo, Frantziara gero, Arenys de Marren (Bartzelona) zegoen ume euskaldunen kolonia batean ere izan ziren. Han zeudela, Imanol anaia gaixotu eta hil egin zen. Handik, berriz ere Frantziara, Santo Domingora (Dominikar Errepublikak) eta Mexikora joan



zen. Boisen ezagutu zuen egun bere senarra den Ben Shuey. 4 seme-alaba dituzte; Gregory, Elisa, Robert eta Amaia. Arantzak interprete moduan egin zuen lana Seatleko Inmigrazio Epaitegian eta gaztelerazko klaseak eman zituen. Shorelinen (Washington) bizi dira 1956tik. Sarri etortzen dira Ermura eta 2011ko abenduan izan zen azkenekoz, bere memoriak ingelesez batzen dituen liburua Ermuko Liburutegian utzi zuen.

Espe Izarrak bere ahotsaren arrastoa utzi zuen irratien uhinetan eta Arantza Cazalis Izarrak bere bizitzaren testigantza laga du idatzi berri duen liburuaren orrietan. Idatziz eta ahoz, Ameriketara joan ziren Ermuko izarrek dirdira egin dute.

Alazne Aiestaran



Professor Camille Powers and her assistant Arantza Cazalis, Boise Junior College, 1949

**san pelayo**  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

**Quetzal** berria!!

[arropa, bitxiak, opariak...]

ekainetik aurrera  
**Eibarren ere**

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

**ZUTIK**  
garagardotegia

**Ogitartekoak,  
hanburgesak,  
plater konbinatuak,  
kaxolak....  
konpainiarik onenean!!**

**Zubiaurre 21 - arkupeetan  
ERMUA • 94317 39 78**

**ETXERA  
eramateko  
616 80 22 81**

*Euskara eta euskaltegia  
egin biak zureak*

**UDAL** EUSKALTEGIA

**Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25**

**ALBOKA**

**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# Azaroaren 10ean, larunbata: Badator XXIII. San Martin Azoka!!

Azken 23 urtetan bezala, Euskal Birusak San Martin Azoka prestatzen dihardu. Gero eta ekimen gehiago, eta gero eta indar gehiago behar. Hainbat lan dago egiteko eta gurekin bat egin nahi baduzu, deitu **943030465** telefonora edo idatzi mezua **euskalbirusa@euskalnet.net** helbidera.

Egin beharrekoak:

- 6.00etan azokaren muntaia.
- 9.00etan plazako txosnaren muntaia.
- 15.00etatik aurrera: dena jaso.

Egunean zehar:

- Errifak saldu.
- Taloen eta tiket postuetan eta txosnan txandak egin.
- Saiheskia erre...

**... Animatuko zara?**



**Ferreteria / Burdindegia**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikuluak

**ANBOTO**

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreteriaanboto.es

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

# San Martin Kulturalaren baitan hainbat ekimen burutuko dira


**Benito Lertxundi, lehen mailako bertsolariak, Goenkaleko lagunak eta Jon Maia izango ditugu bisitan azaroaren 2a eta 30a bitartean. Gainera, sagardo dastaketa, gaztañerre eta talo ikastaroan parte hartzeko aukera egongo da, besteak beste, San Martin Kulturalaren barruan.**

**S**an Martin azoka heldu baino astebete lehenago ekingo zaie San Martin Kulturalako ekimenei, hau da, azaroaren 2an. Egitarauari hasiera emateko, bertso jaialdia egingo da Ermua Antzokian, 22.15ean hasita, eta bertan ondorengo bertsolariek parte hartuko dute: Sustrai Kolina, Uxue Alberdi, Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Anjel Mari Peñagarikano eta Beñat Ugartetxea. Josu Goikoetxea, berriz, gai jartzaile izango da. Euskal Birusak eta Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatutako ekimen honetan sarrerak alde zurrerak erosi ahal izango dira 10 eurotan.

Azaroaren 5ean talo ikastaroa antolatu du Euskal Birusak, 19.00etan Leku Eder elkartearen. 2 euroko prezioa du eta 943030465 telefonora deitu beharko dute parte hartu nahi dutenek.

### Sagardo dastaketa

Azaroaren 7an sagardo dastaketa egingo da Lobianon, Lobiano Elkarte Gastronómicoak antolatua.



19.15ean hasiko da eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Asturiasko sagardoak dastatzeko aukera egongo da.

Hilaren 12an gaztañerre eguna ospatuko da Kaltxango AEK euskaltegia eta Berbalagun egitasmoaren eskutik. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du afari-merienda autogestionatu honetan, 19.30etik aurrera Erretera Elkartearen.

Azaroaren 16an 'Goenkale, Markesaren erretratoa' antzerkia izango da Antzokian, 22.15ean, Udaleko Kultura Sailak antolatua. Sarrera 10 eurokoa da. Hurrengo egunean, hilak 17, eta Kultura Sailak antolatua, 'Alabatxoa' umeentzako Antzerkia egongo da ikusgai antzokian, 17.00etan (sarrera, 4 euro).

Azaroaren 22an, 'Gazta zati bat' ikusteko aukera izango da zineklubean, Mudo Drogotek eta Ateneo Libertarioak antolatua. Jarraian Jon Maiarekin sola-



saldia egingo da (sarrera, 3,5 euro).

Hilaren 30ean kontzertua eskainiko du Benito Lertxundi abeslariak. Kultura Sailak antolatuta, Antzokian egingo du emanaldia eta 18 euroko prezioa izango du sarrerak.

Dorleta Vidal

San Martin Kulturala

## Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, azaroaren 2an, 22.15ean



Maialen

Lujanbio



Sustrai

Kolina



Igor

Elorza



Gai jartzailea

Josu

Goikoetxea



Beñat

Ugartetxea



Uxue

Alberdi



Anjel Mari

Peñagarikano

**Sarrera: 10€**  
Lobiano Kulturagunean,  
BBKko kutxazain,  
webgunean eta  
944 310 310  
telefonoan salgai.



**KUBA EZAGUTZEKO  
KANPAINA ABIATU  
DU LIBURUTEGIAK**

Urrian hasi eta abendura bitartean Kubako literatura, ikus-entzunezkoak, musika, ahozko tradizioa, kultura eta geografia ezagutzeko aukera egongo da Udala Liburutegian. Horretarako irakurketa-gidaz, argazki erakusketaz, hitzaldiez eta bideo-forumaz baliatuko dira arduradunak eta Ermuan bizi diren kubatarren laguntza ere ezinbestekoa izango da. Eusko Jaurlaritzak herri ezberdinetako liburutegiekin elkarlanean burutzen duen ekimen hau "Munduko paisaiak" kanpainaren barruan dago.

**LASTER IZANGO DIRA  
ERMUAN EDUKIONTZI  
MARROIAK**

Ermua, Eibar, Elgoibar eta Sorluzera hedatuko du Debabarrenak bio-hondakinak jasotzeko sistema. Honen ardura Tolosako Artelatzen enpresarena da eta horren arabera "etxe bakoitzean sortzen den zaborraren %43 inguru organikoa da, eta behar bezala bereizi eta edukiontzi marroietara botaz gero, konpost (ongarri) bihur daiteke". Bailarako 22.000 familiek izango dute hondakinak bereizteko aukera baina horiek alde aurretik izena eman beharko dute. Jarraian ontzi marroi txiki bat, poltsa biodegradagarriak, informazio-liburuxka bat eta kaleko edukiontzi marroia irekitzeko giltza jasoko dute doan.

**Urte eguna, 100 biderrez ospatuta**


Victoria Arriaga Rementeriak 100 urte bete ditu. Eitzagako 'Bizinari' baserrian jaioa, gazte-gaztetatik joera gehiago izan du Ermua alderantz Zaldibarrera baino. Hemen bizi izan da azken 40 urteetan. 'Ahozko Ondarea' egitasmorako egin zitzaion grabaketan Eitzagako auzo-eskola, txerri hiltzeak, gerratea, hiletak edota sutako hautsarekin egiten zuten lexiba ekarri zituen gogora. Mendeurrenarena egun berezia izan zen berantzako eta etxeokentzako. Orain bere bizileku den 'Abeletxe' egoitzan gertuko eta ezagunen zoriontze, opari eta musuez gain, hainbat erakunderen lore sorta eta detailtxo jaso zituen. Zorionak, Victoria eta urte askotarako, zelan ez!

**Titanic tabernak 'Publikoaren sari berezia' irabazi du  
XV. Bilbo Bizkaiko pintxo lehiaketan**

Zaldi azpizuna plantxan, onddoeg egindako bitsarekin eta patata hostopilarekin. Hauxe da Jesus González ermurrak sortutako pintxoia eta honi esker publikoaren sari berezia bereganatu du urrian burututako pintxo lehiaketan. Titanic tabernako sukaldariak 60 taberna eta 120 pintxo baino gehiagorekin lehiatu behar izan du eta urriaren 23an bere saria jaso zuen Artxandako Sukaldaritzan Eskolan. Gonzálezek datorren urtean ere parte hartzeko asmoa du eta baliteke Euskadiko txapelketan parte hartzea baita ere. Gainera, aurtengo Jardunaldi Gastronomikoetan aurkeztuko duen pintxoia ere buruan du nahiz eta momentuz ez duen ezer aurreratu nahi.

**Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak Ermuan**

Urriaren 21ean burutu ziren hauteskundeetan PSE-EEK, PPK eta EAJk boto nabarmen galdu zituzten 2009ko hauteskundeekin alderatuta; EH Bilduk, IU-Ezker Anitzak eta UPyDk, berriz, gora egin zuten. Boto gehien galdu dituen alderdia PSE-EE da, 975 guztira (3.888 bototik 2.913 botori jaitsi da). PPK, berriz, 478 boto gutxiago lortu ditu (1.742 bototik 1.264 botori) eta EAJk, azkenik, 157 boto galdu ditu (1.755tik 1.598ra). EH Bilduk 1.188 boto lortu ditu Eusko Legebiltzarreko estreneko hauteskunde hauetan. UPyDk duela 3 urte baino 115 boto gehiago lortu ditu (155tik 270ra) eta IU-Ezker Anitzak 42 boto gehiago erdietsi ditu (366tik 408ra). Hauteskunde hauetan 13.112 ermuar zueden deituta eta 8.281ek eman dute botoa, abstentzioa, beraz, %36,8koa izan da (2009an %33,6koa izan zen). 62 ermuarrek boto baliogabea eman dute (275ek, 2009an) eta 102k boto zuria (72k, 2009an).



**Proba-Leku**  
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**

**T** XALAPARTA  
ABERNA

**Etan asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13  
(Ermua)

**ENKARGYAK**  
**943 030 299**

**NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

# Liburutegien VI. Kongresu nazionalean hartu du parte Ermuko Udal Liburutegiak

**E**rmuko Udal Liburutegiak parte hartu zuen Burgosen ospatu zen Liburutegien VI. Kongresu nazionalean, Kultura Ministeriotik 'Bertako Bilduma-Colección Local' atalaren nondik norakoak aurkezteko gonbidapena jasoz ostean. Ermuari buruzkoak edota ermuarrek sortutakoak dira Bilduma berezi hori osatzen duten dokumentuak. Euskarri arrunt zein bitxietan, Ermu usaina duten liburu, CD, artikulua, prentsako hemeroteca, argazki, jaietako kartel eta egitarau, gutun, bideo, eskolaumeen lan, postal eta abarrez hornitzen da herriaren artxibategi hori.

Ezustean hartu zituen Madrilgo gonbidapenak eta ilusio handiz prestatu zuten euren ponentzia Liburutegiko arduradunek. Argi zuten Ministeriokoek ermuarrek kontaktuan jarri zirenean egitasmoa bete-betean sartzeko zela Kongresuko 'Bibliotecas y comunidad en la era digital' azpiatalean. Atal horren oinarrian zeuden, besteak beste: herritarren partaidetza, liburutegiaren babesa senitarteko eta bertako historiari zein turismo kulturalari eta baita liburutegia, herritarrek egindako ekarpenak eduki digital bihurtzeko eta tratatzea globala emateko prest

dagoen erakundea. Baina Kongresuaren antolatzaileek Ermua eredu bezala aukeratzearen beste arrazoi potoloetako bat izan da, goiko lidoari men egiteaz gain, Euskadiko Irakurketa Publikoen absysNET sarean bere dokumentuak katalogatuta eta erabiltzaileen esku jarri dituen aurreneko liburutegia izatearena. Bilduma osatzen duen dokumentazio bariatu hori katalogatzeko zeuden zailtasunei erreparatuta, Eusko Jaurkitzako Liburutegietako teknikari baten laguntza eskatu zen, protokolo bat sortzeko eta liburu edo CD bat katalogoan sartzeko den irizpide bertsuekin sartzeko jai egitarau, gutun, postal eta gainontzekoak.

Ermuko lau arduradun bertaratu ziren, han zeuden hizlariengandik ikasteko eta entzuleriarekin bertoko esperientzia konpartitzeko. Hitzaldi teoriko bat, Europa mailako informazio bilketarako ekimen bat eta Ermuko zein Madrilgo liburutegien esperientzia praktikoak entzun ziren Ermuak parte hartutako atalean. Aurtengoa izan da Kongresuak egitarau nazioarteko 'Europeana' erakundearekin bat egin duen lehen aldia, gai komunen gainean dauden dokumentuen datu-base zentralizatu bat egiteko ahaleginean sortua. Ekimen horretan



maila altuko artxibo eta liburutegiek parte hartzen badute ere, Ermuko arduradunek ez zioten entzungor egin aukera horri.

## Hobetze bidean

Ez du Udal Liburutegiak amaitutzat ematen egitasmoa eta hobetze bidean jarraitzen du: uda honetan ere beste astindutxo bat eman diote eta material gehiago eskuratzeko kanpaina berri bat jarri dute martxan. Beste behin azpimarratu dute herritarren esku-hartzearen ezinbestekotasuna eta Bilduma herritarrei esker osa-

tuz joatearen beraien harrotasuna, bitartekari legez sentituz beti ere.

Liburutegian dagoen kristalezko armairutxoan kuxkuxeatuz edo interneten, [www.ermua.es/biblioteca](http://www.ermua.es/biblioteca) udal webgunean 'Bertako Bilduma' sakatuz, zer motako dokumentu eta bitxikeri gordetzen diren jakingo duzu, haren baten konturatu eztean duzun horri ere lekutxo bat egingo diotela bertan. Gauza pertsonalak herritarri eta denon ondare egiten dira norberak horrela erabakitzen duen unetik.

Estibalitz González

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 **ERMUA** TEL. / FAX 943 17 42 89

**Manu, iturgina:**

## “Bezero bakoitzaren beharrianak entzun eta errealitate bihurtzen ditugu”

2007an Merkatu Plazan zabaldu zuen iturgindegia Manuk eta 2009ko urritik aurrera ‘Euskadiko kutxaren’ aurrean topatu dezakegu ‘Manu iturgintza’, bainugela altzari dendarekin batera. Enpresa gaztea izan arren, bertan ari den Manuk urte askotako esperientzia du gas, berogailu eta ur instalazioetan eta berak dioen bezala, aldakuntza handiak eman dira iturgintzan azken urteotan, batez ere erabiltzen diren material motetan.

**- Zeintzuk lan egiten dituzte batik bat?**

Ni ur, gas eta berogailu instalatzaile baimendua naizenez, instalazioak egin eta Eusko Jaurlaritzan alta ematen dut. Horrekin lotuta, edozein etxeko edo negozio-ko obren koordinazioak egiten ditut. Izan ere, horretarako profesional talde bat dugu, barne diseinatzaile, igeltsero, margolari, elektrizista, zurgin eta iturginez osatuta.


**- Nola egokitzen zarete bezeroen beharrianetara?**

Guretzako bezero bakoitza berezia da eta hori dela eta bakoitzaren beharrianak entzun eta errealitate bihurtzen saiatzen gara. Kontutan hartu behar dugu familien ongizate alorrean

lan egiten dugula eta lan ondorengo zerbitzuak garrantzi handia duela. Gure bezeroek, beraz, 24 orduz dute gurekin kontaktuan jartzeko aukera.

**- Gaur egun merkatal-gune handietara jotzeko joera handia dago. Zein da zuen eta euren arteko aldea?**

Batzuetan pentsatzen dugu saltoki-gune handietan produktu merkeagoak aurkitu ditzakegula, baina hori ez da askotan horrela izaten. Izan ere, guk eskaintzen ditugun produktuak beraien hornitzaile berdinek saltzen dizkigute eta prezio berean eskaintzen ditugu, abantaila batekin: edozein arazo baldin badago (matxuratuta heldu dela, piezaren bat falta dela...) gu herrian bertan gaudela. Eta horretaz gain,



produktu pertsonalizatuak saltzen ditugu.

**- Azken urteotan aldaketak egon dira iturgintzan?**

Bai, lehen instalazioak kobreakin egiten ziren baina gaur egun kobrea ez da ia erabiltzen. Ingurumenaren zaintzeari bultzada egin behar diogu instalatzaileok... Bestetik, ingurumenaren zaintzarekin batera beste produktu batzuk sortzen ari dira: baserrietan ‘Biomasa’ eta kaleko etxeetan ‘kondentsazio galdarak’ jartzen dira batik bat azkenaldian.

Energia ez berriztatzaileak gero eta gutxiago erabiltzen saiatu behar dugu eta horretarako beste aukera batzuk daude. Orokorrean, bezeroek guk emandako gomendioak jarraitzen dituzte, beraz, pentsatzen dut guk gure aldetik ere horretan lan egin behar dugula. Gainera, ekonomian ere pentsatu behar da eta, nahiz eta hasieran inbertsio handixeagoa egin behar den, energiaren fakturan eragiten duen murrizketarekin soberan konpentsatzen da.

**“Obrak koordinatzeko profesional taldea dugu”**



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfn. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos

**OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA**



*Le-apaindegi bat baino gehiago!!*

**Egokitutako burua garbitzeko konketa**

**943 17 28 09 • Goienkale 12**



**Zigor Ceballos, ziklo-kroseko txirrindularia:**

# “Hezurrik apurtuko ote dudan galdetzen diot nire buruari egunero”

Urrian hasi da aurtengo ziklo-kros denboraldia eta, iaz bezala, Zigor Ceballos ermuarra dugu lehian. Aurten Valladolideko D’Castro taldeak bere babesa eskaini dio eta gainera bizikleten kontrolean astebururo du ondoan neskalguna. Denboraldi amaieran, urtarrilean, Espainiako txapelketara gogotsu heldu, profesionalekin lehiatu eta gauzak ondo egitea espero du.

**- Noiz hasi zinen ziklo-krosean?**

97an hasi nintzen eta 2001ean alde batera laga nuen. Errepideko txirrindularitzan zentratu nahi nuen eta biak ondo prestatzea ezinezkoa zen! Iaz ekin nion ziklo-krosari berriro ere.

**- Eta zer dela eta bueltatu zara?**

Ziklo-krosean ibili izan garenen kirol honek betiko erakartzen jarraitzen gaituela esango nuke, beste batzuen lasterketak ikustera bagoaz, batez ere. Iaz probatu nuen, gustura ibili nintzen eta aurrera!

**- Aurreko urteetan Aitor Hernándezen laguntzaile gisa ibili zara, ezta?**

Bai eta berak animatu nau gehien lehiatzen haste-ko.

**- Kategoria berean aritzen zarete orain?**

Ez, bera ‘elite’ mailan dago, profesionaletan nolabait esateko; ni ‘seniorretan’ ibiltzen naiz, 24 eta 29 urte bitartekoekin. Azken laster-

ketetan baina, kategoria biak elkarrekin lehiatu izan dugu eta tentsio handia egon da. Seniorrok gure lana daukagu ziklo-krosaz gain eta lasterketa hasi aurretik, beti pentsatzen dut hezurrik apurtuko ote dudan. Hurrengo egunean lana daukagun ezin dugu lesiorik izan.

**- Zein da zure helburua kirol honetan?**

Gozatzea. Badakit ez dudala hemendik bizimodua aterako; hala ere, irabazten badut, hobeto!

**- Eta nola doa denboraldia?**

Ondo. Lehen lasterketan jausi nintzen baina bigarrenean bigarren egin nuen, eta hirugarren eta laugarrenen irabazi egin dut, Burgo- sen.

**- Zer da kirol honetan gehien estimatzen duzuna?**

Giroa alde batetik eta bestetik, 40 minutu edo ordubeteko lasterketak direla. Errepidea astunagoa da eta entrenamendu luzeagoak eskatzen ditu. Ziklo-krosean bi



Zigor Ceballos, erdian, Villarcayoko podiumean

ordu edo bi ordu t’erdi egunero entrenatuta nahikoa da.

**- Ordu horiek beste zeregin batzuei lapurtzen dizkiuzu?**

Bai, askotan beste kontu batzuen gainetik ipintzen dut kirola. Bikotekidearekin denbora gehiago pasatu ahal izango nuke baina behintzat minimo batera heltzeko entrenatu behar dut. Kirolari askori minimo hori falta zaie eta arriskutsua izan daiteke.

**- Kirol gogorra delako?**

Bai, lehertzeko kirola da oso. Topera hasten zara eta

40 minutu beranduago topera bukatzen duzu. Gehiegizko pisua izatea, esaterako, ez da batere ona.

**- Eta kirol garestia da?**

Bai, aurten Valladolideko D’Castro taldeak arropa eta lizentzia ordaintzen dizkit baina 2 edo 3 bizikleta behar dituzu, arropa mordoa, materiala, erroberak, bidaiak, prestaketa... Errepidean aritzeko asmoa ere badut eta horretarako bizikletaren koadroa utziko didate D’Castrokoek. Oso ondo portatu dira, oso pozik nago.

Dorleta Vidal

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA

**PUB YOMY**



**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

# YOLANDA PALMERO

**- Mendizalea zara, noiztik daukazu zaletasun hori?**

Txikitatik domekero Urkora joateko ohitura izan dut, gero nerabezaroan laga eta duela lau edo bost urte Artarrain, Ermuko Mendi taldean, izena eman nuen eta ohitura berreskuratu nuen.

**- Zein da igo duzun tontorrik altuena?**

Uste dut Collarada izan dela, Pirinioetan dago.

**- Zer erakusten dizu mendiak?**

Ez dakit zerbait erakusten didan, baina oso ondo sentitzen naiz mendira noanean. Lasaitasuna ematen dit.

**- Atsegin duzu zure lana?**

Bai, asko. Oso dinamikoa da, ekintzak antolatu, jendeari arreta eskaini...

**- Jendearen aurrean lan egiten duzu. Gustuko duzu jendearekin harreman zuzen hori?**

Bai, gustuko dut. Noiz-behinka momentu txarren bat pasatzen da, baina orokorrean oso atsegina eta aberasgarria iruditzen zait

**- Ogibidez aldatzeko aukerarik izango bazenu?**

Ez diot inoiz nire buruari planteatu.



**Ermuar hau duela 46 urte etorri zen mundura. Alaba bakarra, 24 urteko semearen ama da. Urteak daramatza Ermuko Udalean lan egiten eta Lobiano Kulturgunea ireki zenetik bera da irribarretsu hartzen gaituena bertara goazenean.**

**- Zer egiten zenuen gaztetan?**

Auzoan egoten nintzen, kalean egun osoa, mendira joan... 15 urterekin Ermura 'igotzen' hasi ginen poteatzera.

**- Bihurria zinen?**

Ezetz esango nuke. Ez dakit nire amak gauza bera esango lukeen.

**- Zer desberdintasun dago gaur egungo gazteen eta zure gaztaroaren artean?**

Nik uste guri gehiago kostatzen zitzaigula gauzak lor-

tzea. Oraingo gazteek esfortzu txikiagoa egin behar dute. Hala ere, lehengo gazteok eta oraingoak antzeko kezka izan ditugula uste dut.

**- Zer gomendio egingo zenioke gazte bati?**

Ez zait batere gustatzen gomendioak ematea, niri jasotzea ere ez zaidalako batere gustatzen.

**- Zein da egin duzun azkeneko bidaia?**

Abuztuan egun batzuk pasatu nituen Segovian eta ikaragarri gustatu zitzaidan!

**- Irakurri duzun azkeneko liburua?**

'Balzac y la jóven costurera china'. Gustatu egin zait eta asko ikasten da Txinatar erregimenaren inguruan

**- Akatsen bat?**

Ezetz esatea asko kostatzen zait.

**- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Edukazio txarrak

**- Zerk alaitzen dizu eguna?**

Esnatu eta egun eguzkitsua dugula ikusteak.

**- Zer falta zaio Ermuari?**

Berdegune gehiago.

Ane Saénz

**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-mail: enter-i@arrakis.es



**Harategia**

**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian  
Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

**LANA**

Haur Hezkuntzako hezitzaile euskalduna eta esperientziaduna, goizez nahiz arratsaldean Mallabi eta Ermuan umeak zaintzeko prest. Auto propioa. © 619811629

Tabernak garbitzeko edo pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen naiz. © 688812845 Juan.

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. © 618 05 09 02. Anabel



Azaroaren 5ean  
Zorionak Naia eta ondo pasatu zure laugarren urtebetetzean etxeko guztion partez.



Urriaren 29an  
Zorionak Mikel zure 5. urtebetetzean. Ondo pasa eta musu handi bat familia osoaren partez!!!



Urriaren 25ean  
Zorionak Aritz txapelkun zure 9. urtebetetzean eta muxu handi bat etxeko guztion partez.



Urriaren 12an  
Zorionak amama Pilar zure urtebetetzean familia osoaren partez.



Irailaren 30ean  
Zorionak Ainhoa. Musu erraldoi bat Maite, ama eta aitaren partez.



Urriaren 1ean  
Zorionak maitea! Muxu asko etxekoaren partez.

**Hurrengo zenbakirako azken eguna:**  
  
**AZAROAREN 14a**



Urriaren 16an  
Birramamarik, amamarik, amarik eta ahizpa eta arreba politenarentzat sor diogun guztiagatik mende bat betetzerakoan. Muxu handi bat.



Azaroaren 12an (Mikel) eta azaroaren 25ean (Olatz)  
Zorionak. Oso ondo pasa eta muxu handi bat zuen familiaren partez.

optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnua. 943 17 46 51

komunitateak aseguruak

**San Pelayo**

aholkularitza fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PRODUCTOS SELECTOS

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

**MAYTE**

Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
**ERMUA**

**ARTARRAI**  
OPARI DENDA

Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19  
**ERMUA**

**OUTUMURO**  
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

**MALLABIA  
1981**

Argazki hau Mallabiko eskolan aterata dago:

Bertan agertzen dira:

Richard Díez, Ramón Antxia, Pello Zubiato, Josu Gerenabarrena, Ismael Pradera, Garikoitz Txakartegi, Idoia Pérez, Idoia Alberdi, David Rodriguez, Ana Belen Pérez, M<sup>a</sup> Mar Vazquez, M<sup>a</sup> Tere (irakaslea), Laura Lafuente, Gizane Arrillaga, Susana Pinilla, Marian García, M<sup>a</sup> Ángeles Otero eta Dorleta Landa.

**ERMUA  
1914**

Víctor, Lucre eta Félix Izagirre Garate anai-arrebak Erdikokaleko 'Erleta' edo 'Eskolaneko' euren etxe gaineko terrazan, Lucre panpin eta otzaratxo hornituta eta txakurra ere geldi-geldi kamerari begira dutela. Nork esan zuen ume eta animaliak erretratatzeko gaitzak direla? Urteetara Félix aurreko etxeko 'Herreroneko' alabarekin ezkondu zen eta etxe bien arteko kaletxoak pilotari handi honen izena darama. Frontoiko frontiseko alboko hormak bere omenezko plaka bat du josita.

**OINAK**

**LEIRE MAYORA**

---

**PODOLOGOIA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**solozabal**  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33

**Badira 23 urte Euskal Birusa elkarteak San Martin azoka antolatzeari ekin zionetik. Jai egun erraldoia bilakatu da, baina badira oraindik antolaketari buruzko zalantzak.**

**Badakizu nork antolatzen duen San Martin azoka?  
Zure inguruko jendeak badaki?**

San Martin azoka Euskal Birusak antolatzen du eta aurten azaroaren 10ean ospatuko da. Nire inguruko jendeak jaia nork antolatzen duen badaki, goizean-goiz San Martin ospatzen dugulako!



**Leire Rodríguez, 19 urte**



Euskal Birusak antolatzen du San Martin azoka. Inguruko gehienek badakite, guretzat oso inportantea den eguna delako eta euskara bultzatzen duelako.

**Mikel Goitandia, 21 urte**



Ez dakit nork antolatzen duen San Martin azoka. Ingurukoek behar bada jakingo dute, txikitan azokan parte hartu genuelako.

**Jessica Santiago, 19 urte**

Bai. Euskal Birusak sortu eta antolatzen du San Martin azoka. Oso ondo eramaten dute gainera! Noski, inguruko askok badakite gaia ezagutu eta horretan lan egiten dutelako.



**Juan José Marcos, 60 urte**

Ermuko Udalak antolatzen duela uste dut, baina, ez nago ziur. Azoka gustatzen zaigun arren, lagun artean ez dugu inoiz antolatzaileak nortzuk diren komentatu.



**Loli Fernández, 53 urte**



Bai, San Martin azoka Euskal Birusak antolatzen du. Ingurukoek jakingo dute, urtero azokara joaten garela eta erromerian dantzatzen dugulako.

**Ander Prol, 19 urte**

Leire Elustondo eta Izara Rivas

**akerlei**  
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5  
48260 - Ermua  
943 17 66 32  
akerlei@akerlei.com

**INGELESA**  
Oinarrizkoa,  
tarteko maila eta advanced

**FRANTSESA** Oinarrizkoa  
**ALEMANA** Oinarrizkoa

**BERRIKUNTZAK:**  
4 urteko umeentzako ingeles eskolak  
Helduentzako speaking eskolak



**Bar London**  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

**ZINEA**

*Hilaren 3tik 5era.*  
*Hilaren 10etik 12ra.*  
*Hilaren 17tik 19ra.*  
*Hilaren 24tik 26ra.*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 Hainbat ordutegi.  
 Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 4.*  
*Hilak 11.*  
*Hilak 18.*  
*Hilak 25.*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 1.*  
*Hilak 8.*  
*Hilak 15.*  
 Zehaztu gabeko filmeak.  
*Hilak 22:*  
 'Gazta zati bat'.  
*Hilak 29.*  
 Zehaztu gabeko filmea.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.

**MUSIKA**

**Hilak 11:**  
 Opera ikus-entzunezko emanaldia: Bizeten 'Carmen'. 20:30etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 8€

**Hilak 20:**  
 Blues kontzertua: Los gatos bizcos.  
 20:00etan. Lobianon.  
 Sarrera: 8€

**Hilak 22:**  
 Kalejira: Zezilia deunaren diana Irulitxa txarargaren eskutik 7:00etan.

**Hilak 22:**  
 Zezilia Deunaren kalejira. 18:30etatik aurrera.

**Hilak 23:**  
 Zezilia Deunaren Jaialdia. 22:00etan.  
 Santiago elizan.

**Hilak 24:**  
 Kalejira: Ermuan kantuan. 12:30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.

**Hilak 24:**  
 Olibondoko Jaialdia. 18:00etan. Andaluziako Kultur Zentruan.

**Hilak 30:**  
 Kontzertua: Benito Lertxundi. 22:15ean.  
 Antzokian. Sarrera: 18€

**ANTZERKIA**

**Hilak 9:**  
 'El testigo', Rafael Alvarez 'El Brujo'. 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 12€.

**Hilak 16:**  
 'Goenkale (markesaren erretratoa)', Pausoka Produzioen eskutik, 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

**ERAKUSKETA**

**Hilaren 5etik 25era:**  
 Ilustrazioak: Sonia García. 18:00etatik 20:00etara.  
 Lobiano Kultur Gunean.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 3:**  
 Haurrentzako ipuin kontaketa: 'Munduko zenbait kondaira', Zurrunka antzerki taldearen eskutik. 17:30ean. Liburutegian.

**Hilak 17:**  
 Haurrentzako antzerkia: 'Alabatxo'. Marie de Jongh taldearen eskutik. 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 4€

**BESTELAKOAK**

**Hilak 2:**  
 Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Sustrai Kolina, Beñat Ugartetxea, Uxue Alberdi, Igor Elortza eta Anjel Mari Peñagarikano. Gai jartzaile: Josu Goikoetxea. 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10€

**Hilak 10:**  
 San Martin nekazal azoka: hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera. Orbe Kardenalaren plazan eta inguruko kale eta plazetan.

**Hilak 12:**  
 Gaztañerre. 19:30etan.  
 Erretena elkartearen.

**Hilak 17:**  
 Magostos: Galiziako Zentruan eta San Isidro kalean. 10:00etatik aurrera.

Patxi López

**Yoga eskola**

**Sanatana Dharma**

- \* Osteopatia
- \* Bertebrologia
- \* Anginak sendatzeko masajea...

San Roke 24, behea  
 943748593 · 685722131 (Idoia)

**TELEFLOR INTERNACIONAL**

Zubiaurre 14  
 Telef. 943 17 28 88  
 48260 ERMUA

**EGUZKILORE**


**MIGUEL Harategia**



**TXORIZOAK ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3  
 ☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
 (Bizkaia)

hamburguesería **TITANIK**



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

# GREMIOEN

# GIDA

**DEKORAZIOA**  
OHREN KOORDINAZIOA • MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILERA

dekorazio estudioa

**trastévere**  
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**ITURGINTZA**

FONTANERIA  
**B. DE DIOS**

Baimendutako instalatzaileak  
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta  
petrolio produktua  
Komunitateko altzariak  
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb., 48 - behea  
Tel/Fax. 943 17 01 09  
E-maila: bdedios@euskalnet.net

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

**ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Kalefakzioa
- Instalazioak
- Gaueko tarifa
- Erreformak
- Erradiadore elektrikoak


Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Irudi korporatiboa
- Autoendako errotuloak
- Neoia
- Barne errotulazioa
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net



**PERTSIANAK**

TOLDOS Y PERSIANAS **ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURITASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:  
Zearreko buelta 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**ARROZTEGIA**

**Iraner**  
Puertas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulak salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 iranercb@gmail.com

**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

**LUIS VALLE**

Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56

Tailerra  
943 17 23 56

Goienkale z/g

**Gremioen Gidan  
publizitatea jarri nahi baduzu...  
Deitu**

**943 17 93 50**

edo **688 63 28 76**



# BAÑOS



**5. urteurrena  
ospatuko dugu.  
Eskerrik asko  
zure konfiantzagatik!!**

**Baldespina markesa 16, behea - Denda: 692 67 42 98 - Manu: 667 61 87 11**

